



SILICIE – Zerga Berezien Kontabilitate Liburuen
Berehalako Hornidura

ZBKLBH FITXATEGIA INPORTATUZ TRUKEAREN
ALDERDI OROKORRAK

Ogasun eta Finantza Saila
Bizkaiko Foru Aldundia

2025/07/01



Egilea: Foru Ogasuna	Data: 2025/07/01	Bertsioa: 1.1

Ediz.	Ber.	Data	Deskribapena	A(*)	Orrialdeak
1	0	2025/07/01	Hasierako bertsioa		20

(*) Ekintza: A = Erantsi; R = Ordezkatu

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	3
1 SARRERA	5
2 BERTSIO-KONTROLA	7
2.1 1.0 hasierako bertsioa	7
3 FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ESKEMA OROKORRA	8
3.1 Kontabilitate-idazpenen alta	10
3.1.1 Deskribapena.....	10
3.1.2 Fluxua	10
3.1.3 Fitxategien egiturari buruzko zehaztapenak	11
3.2 Kontabilitate-idazpenak kontsultatzea.....	11
3.2.1 Deskribapena.....	11
3.2.2 Fluxua	12
3.2.3 Fitxategien egiturari buruzko zehaztapenak	12
3.3 Kontabilitate-idazpenen deuseztapena.....	12
3.3.1 Deskribapena.....	12
3.3.2 Fluxua	13
3.3.3 Fitxategien egiturari buruzko zehaztapenak	14
3.4 Izakinak kontsultatzea	14
3.4.1 Deskribapena.....	14
3.4.2 Fluxua	14

3.4.3	Fitxategien egiturari buruzko zehaztapenak	14
4	DATUEN HIZTEGIA	15
5	INFORMAZIOA HEDATZEKO EREDUA	18
5.1	Erabilitako estandarrak.....	18
6	MEZUEN EGITURA	19
6.1	Balioen zerrendak.....	21

1 SARRERA

1512/2018 Errege Dekretuak, abenduaren 28koak, besteak beste, zerga bereziei buruzko araudiaren 50. artikulua aldatu du. Nolanahi ere, aipatu araudiak zergaren xede diren produktuei eta, bidezkoa bada, lortzeko lehengaiei dagokienez, kontabilitatea eramateko eskakizuna arautzen du.

Azaldutako araudi-aldaketaren ondorioz, zerga-bereziei buruzko arautegiak eragiten dien establezimenduek zergen kontabilitatea eramatearen eskakizuna bete behar dute eta, horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoaren bidez euskarri informatikoan kontabilitate sistemaz baliatu behar dute.

Eskakizun hori betetzea ahalbidetu eta errazteko, araudiaren arabera nahasitako establezimenduek Bizkaiko Foru Ogasunari kontabilitate-idazpenak emateko kontabilitate-sistema informatikoa garatzeari ekingo zaio. Zerga berezien kontabilitate liburuak kudeatzeko sistema (SILICIE v1) bat ezarri zen. Hala, behartutako zergadunek (eta borondatez erabiltzea erabakitzen dutenek) Zerga Bereziekin lotutako kontabilitate idazpenen xehetasunak bidali beharko dituzte, egituratutako formatu baten arabera eta foru aginduak zehaztutako epean, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez. Informazio hori zentsatutako establezimendu bakoitzeko bidaliko da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez fabrikazio zerga berezien xede diren produktuen kontabilitatea orokorki ezarri ondoren, sistema horren alderdi batzuk aldatu behar dira, kontabilitateko ekitaldien araberrako kontabilitatean oinarritutako sistema baterantz aurrera egiteko. Sistema horretan, kontabilitateko idazpenen hornidura mugimendua, eragiketa edo prozesua gertatzen den kontabilitateko ekitaldiari lotuta egongo da: SILICIE v2.

Horretarako, kontabilitateko ekitaldia definitzen da, urte naturalarekin bat datorrena, eta kontabilitateko ekitaldi bakoitzaren irekiera eta itxiera jakinarazpenak egitea aurreikusten da, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, eta kontabilitateko ekitaldien itxieraren berri eman ez zaien kontabilitateko idazpenak hornitzea.

Aplikazioaren lehenengo bertsioarekin (SILICIE v1) bezalaxe establezimenduek formatu argi eta egituratua izango dute Bizkaiko Foru Ogasunari informazioa bidaltzeko. Horrez gain, beste betebeharrak batzuk murriztuko zaizkie; esate baterako, eragiketen aitortpenak aurkezteko derrigortasuna ezabatuko da. Kontabilitate-liburuak eramateko sistema berriari esker, Bizkaiko Foru Ogasunak zerga-iruzurra kontrolatu eta prebenitzeko informazio nahikoa eta kalitatezkoa izango du. Izan ere, horiek lehentasunezko helburuak dira, baina, aldi berean, zergadunei eskakizunak betetzeko laguntza-tresna eskainiko die.

SILICIE v2 (Zerga Berezien Kontabilitate Liburuak Berehala Emateko Sistemaren 2. bertsioa) sistema indarrean sartuko da 2025eko uztailaren 1ean. 2025eko maiatzetik aurrera proba esparruak eskuragarri egotea aurreikusi da, establezimenduak eta software hornitzaileak sisteman integratu ahal izateko.

2 BERTSIO-KONTROLA


2.1 1.0 hasierako bertsioa

Dokumentua sortzea.

3 FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ESKEMA OROKORRA

Sistemaren funtzionamendua establezimenduek Bizkaiko Foru Ogasunari Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoen bidez informazio egituratua bidaltzean datza eta kanal desberdinez baliatuko dira:

- Web zerbitzuak (lehenetsitako bitartekoa)
- Fitxategia inportatzea
- Banako idazpenaren web inprimakia



1. irudia SILICIE hornidura sistema. Funtzionamendu eskema

Establezimendu erroldatuek eman behar duten zerga-bereziei buruzko zerga informazioaren inguruan, CSV fitxategiak inportatuz dokumentu honek trukefuntzionamendua jasoko du.

Horretarako, establezimendu bakoitza alde aurretik Jarduera Ekonomikoaren Kodearekin (JEK) identifikatuko da eta establezimendu-motaren arabera sailkatu ere bai. Hala, egitura normalizatuari jarraiki idazpenak bidali beharko ditu zerga-egitatea gertatzen denetik denbora-tarte zehatzean.

Establezimendu motaren arabera, zerbitzu desberdinak eskainiko dira, idazpenaren eremuko berezko datuak eta eragiketak espezializatzeko.



2. irudia: SILICIE hornidura sistema. Funtzionamendu eskema

Helburu horrekin sistema 4 zerbitzu-multzo desberdinetan banatu da:

- Alkohol eta edari alkoholikoei buruzko zergarekin zerikusia duten establezimenduak. Hurrengoak multzokatzen ditu:
 - Garagardoaren gaineko zerga
 - Ardo eta edari irakinen gaineko zerga
 - Bitarteko produktuen gaineko zerga
 - Alkohol eta edari deribatuen gaineko zerga
- Tabako lanen gaineko zergaren multzoa.
- Establezimenduan bertan edari alkoholikoen eta tabako lanen zergek eragiten dituzten produktuak gorde eta merkaturatzeko establezimenduen multzoa (DM, DP, DF, AF).
- Hidrokarburoen gaineko zergarekin zerikusia duen establezimenduen multzoa

Hurrengo zerbitzuak eskainiko dira:

- Kontabilitate-idazpenen alta.
- Kontabilitate-idazpenak indargabetzea.
- Datuak kontsultatzea:
 - Aldez aurretik emandako idazpenak.
 - Establezimenduan produktuen izakina(k)

Zerbitzu mota bakoitzak egitura semantiko desberdina izango du eta zehaztapen teknikoei buruzko dokumentuetan deskribatuko da.

Kontabilitate-idazpenak eman ostean, ezingo dira aldatu. Akatsa gertatuz gero, indargabe daiteke.

Indargabetuz gero, idazpen berria sortuko da indargabetutako idazpenaren datu berdinekin, baina indargabetu mota modura identifikatuta. Tipologia horri erreparatuz, zenbakizko kopuruen ikurrak jatorrizko idazpenaren aurkakoak dira.

Idazpen bat aldatzeko, nahitaezkoa da kontabilitate-idazpenari baja ematea eta kontabilitate-idazpen berriari alta ematea. Nolanahi ere, bigarrenak indargabetutako idazpenaren erreferentzia izango du.

3.1 Kontabilitate-idazpenen alta

3.1.1 Deskribapena

Zerbitzu honi esker, establezimendu baten 1etik N idazpenera sar daitezke.

3.1.2 Fluxua

1. Establezimendua Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa sartuko da.
2. Eskatzailea identifikatuko da.
3. Eskatzailea SILICI sistema sartuko da
4. Eskatzaileak ordezkatu nahi duen establezimenduaren IFZ eta JEK sartuko ditu, eta dagokion zerga aukeratuko du.
5. Alta bidaltzeko baimendua dagoela egiaztatuko da.
6. Eskatzaileak kontabilitateko ekitaldia aukeratzen du eta xehetasunera sartzen da.

7. Eskatzaileak fitxategia inportatzeko kontabilitate-idazpenen alta aukeratzen du.
8. Pantailan honakoak bistaratuko dira
 - a. CSV txantiloia
 - b. Adibideak
 - c. CSV fitxategia eransteko atzipena.
9. Establezimenduak 1etik N kontabilitate-idazpenera duen CSV fitxategia erantsiko du.
10. Lehenik eta behin, CSV egituraren arabera eta, gero, datuen arau semantikoak (datumota eta luzera) eta eremu-bakoitzaren negozio-arau bereziak betetzen direla egiaztatuta mezua baliozkotuko da.
11. Mezuaren baliozkotze-emaiztarekin bat, erantzuna ondorengo izan daiteke:
 - a. **Akatsa pantailaren bidez:** Errore mezua pantailan adieraziko dira.
 - b. **OK:** Mezua sintaktikoki zuzena da eta behar bezala baliozkotu da. Halakoetan, N idazpenak SILICIE hornidura sisteman gordeko dira eta erantzute-pantaila bistaratuko da honako informazioarekin: aurkezlea, Egiaztapen Kode Segurua (CSV), aurkezpena ziurtatzen duena, eta CSV erantzute-fitxategia deskargatzeko esteka, sisteman gordetako informazioa izango duena, kontabilitate-idazpen bakoitzaren identifikazio-zenbaki bakarra barne.

3.1.3 Fitxategien egiturari buruzko zehaztapenak

Dokumentu bakoitzean beharrezko datuen egitura zehaztuko da.

Kodea	Deskribapena
IESA1V2CSV	Alkohol eta Edari Alkoholikoen establezimenduen kontabilitate-idazpenari dagokion alta
IESM1V2CSV	Tabakoa eta Alkohola osatzen duten establezimenduen kontabilitate-idazpenari dagokion alta
IESH1V2CSV	Hidrokarburoen zergari buruzko establezimenduen kontabilitate-idazpenaren alta
IEST1V2CSV	Tabako lanen zergari buruzko establezimenduen kontabilitate-idazpenaren alta

3.2 Kontabilitate-idazpenak kontsultatzea

3.2.1 Deskribapena

Zerbitzu honi esker 1etik Nra bitarteko idazpena(k) berreskura daitezke, bilaketaren

hainbat hautespen-irizpideri jarraiki.

3.2.2 Fluxua

1. Establezimendua Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa sartuko da.
2. Eskatzailea identifikatuko da.
3. Eskatzailea SILICI sistema sartuko da
4. Eskatzaileak ordezkatu nahi duen establezimenduaren IFZ eta JEK sartuko ditu, eta dagokion zerga aukeratuko du.
5. Kontsulta egiteko baimendua dagoela egiaztatuko da.
6. Eskatzaileak kontabilitateko ekitaldia aukeratzen du eta xehetasunera sartzen da.
7. Eskatzaileak kontabilitate-idazpenen kontsulta aukeratzen du.
8. Pantaila bat bistaratuko da eta atzipen-irizpide batzuen arabera kontsultak egin ahal izango dira.
9. Irizpide horri jarraiki kontsultatuko zaio sistemari.
10. Idazpenen zerrenda orrikatua erakutsiko da.
11. CSV formatuan emaitzak deskarga daitezke.

3.2.3 Fitxategien egiturari buruzko zehaztapenak

Kodea	Deskribapena
IESA2V2CSV	Alkohol eta Edari Alkoholikoen establezimenduen idazpenak kontsultatzea
IESM2V2CSV	Tabakoa eta Alkohola osatzen duten establezimenduen idazpenak kontsultatzea
IESH2V2CSV	Hidrokarburoen zergari buruzko establezimenduen idazpenak kontsultatzea
IENT2V2CSV	Tabako lanen zergari buruzko establezimenduen idazpenak kontsultatzea

3.3 Kontabilitate-idazpenen deuseztapena

3.3.1 Deskribapena

Zerbitzu honi esker, establezimendu baten 1etik N idazpenera indargabe daitezke.

3.3.2 Fluxua

1. Establezimendua Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa sartuko da.
2. Eskatzailea identifikatuko da.
3. Eskatzailea SILICI sistema sartuko da
4. Eskatzaileak ordezkatu nahi duen establezimenduaren IFZ eta JEK sartuko ditu, eta dagokion zerga aukeratuko du.
5. Indargabetzeko baimendua dagoela egiaztatuko da.
6. Eskatzaileak kontabilitateko ekitaldia aukeratzen du eta xehetasunera sartzen da.
7. Eskatzaileak fitxategia inportatzeko kontabilitate-idazpenen deuseztapena aukeratzen du.
8. Pantailan honakoak bistaratuko dira
 - a. CSV txantiloia
 - b. Adibideak
 - c. CSV fitxategia eransteko atzipena.
9. Establezimenduak 1etik N kontabilitate-idazpenera duen CSV fitxategia erantsiko du.
10. Lehenik eta behin, CSV egituraren arabera eta, gero, datuen arau semantikoak (datumota eta luzera) eta eremu-bakoitzaren negozio-arau bereziak betetzen direla egiaztatuta mezua baliozkotuko da.
11. Mezuaren baliozkotze-emaizarekin bat, erantzuna ondorengo izan daiteke:
 - a. **Akatsa pantailaren bidez:** Errore mezuak pantailan adieraziko dira.
 - b. **OK:** Mezua sintaktikoki zuzena da eta behar bezala baliozkotu da. Halakoetan, N idazpenak SILICIE hornidura sisteman gordeko dira eta erantzute-pantaila bistaratuko da honako informazioarekin: aurkezlea, Egiaztapen Kode Segurua (CSV), aurkezpene ziurtatzen duena, eta CSV erantzute-fitxategia deskargatzeko esteka, sisteman gordetako informazioa izango duena, kontabilitate-idazpen bakoitzaren identifikazio-zenbaki bakarra barne.

3.3.3 Fitxategien egiturari buruzko zehaztapenak

Kodea	Deskribapena
IESX4V2CSV	Establezimenduen idazpenak indargabetzea.

3.4 Izakinak kontsultatzea

3.4.1 Deskribapena

Izakinen kontsulta establezimenduei eskaintzen zaien zerbitzu osagarria da eta, horri esker, establezimenduan produktu-izakinen saldoak azkar ikus ditzakete.

3.4.2 Fluxua

1. Establezimendua Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa sartuko da.
2. Eskatzailea identifikatuko da.
3. Eskatzailea SILICI sistema sartuko da
4. Eskatzaileak ordezkatu nahi duen establezimenduaren IFZ eta JEK sartuko ditu, eta dagokion zerga aukeratuko du.
5. Kontsulta egiteko baimendua dagoela egiaztatuko da.
6. Eskatzaileak kontabilitateko ekitaldia aukeratzen du eta xehetasunera sartzen da.
7. Eskatzaileak izakinak kontsultatzea aukeratuko du.
8. Pantaila bat bistaratuko da eta atzipen-irizpide batzuen arabera kontsultak egin ahal izango dira.
9. Irizpide horri jarraiki kontsultatuko zaio sistemari.
10. Produktuen saldoekin zerrenda orrikatua erakutsiko da.
11. CSV formatuan emaitzak deskarga daitezke.

3.4.3 Fitxategien egiturari buruzko zehaztapenak

Kodea	Deskribapena
IESX3V2CSV	Establezimenduetan izakinen saldoa kontsultatzea

4 DATUEN HIZTEGIA

Ondoren, mezu desberdinetan erabiliko diren etiketak bistaratuko dira. Zerbitzu bakoitzean horri lotutako mota eta formatua zehaztuko da.

Etiketa	Deskribapena
NIF Establecimiento	Establezimenduko titularren IFZ
CAE Establecimiento	Establezimenduko titularren JEK
CSV Mensaje	Egiaztapen Kode Segurua sortzen
NIF Presentador	Eskaeraren aurkezlearen IFK
Razón Social Presentador	Eskaera-aurkezlearen sozietatearen izena
Fecha Presentación	Aurkezpen data Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoa
Fecha Registro Contable	Operadorearen informazio-sisteman kontabilitate-erregistroaren data.
Número Asiento Contable Anulado	Indargabetu beharreko idazpenaren zenbakia
Motivo de Anulación	Indargabetzearen arrazoia (arrazoien zerrendatik elementua)
Número Asiento	Idazpenaren zenbakia (Bizkaiko Foru Ogasunak eskuratutakoa).
Número Referencia Interno	Establezimenduaren euskarri informatikoaren barruan kontabilitatesistemetan kontabilitate-idazpenari esleitutako erreferentzia zenbakia (establezimendu bakoitzeko bakarra).
Número Asiento Previo	Idazpen berriei alta ematen zaienean beteko da, lehen indargabetu diren idazpenak ordezkatzan badituzte edo berriz sartu badira. Bizkaiko Foru Ogasunak kontabilitate-idazpenari esleitutako idazpen-zenbakia adieraziko da.
Tipo Asiento	Idazpen mota (alta, indargabetzea).
Fecha Movimiento	Kontabilitate-islaren produktuen mugimenduari dagokion data.
Ejercicio	Kontabilitate-islaren mugimenduari egotz dakiokeen zerga-ekitaldia (UUUU).
Periodo	Kontabilitate-islaren mugimenduari egotz dakiokeen zergaldia, MM formatuan adierazia, likidazio-aldia hilekoa bada eta XT formatuan likidazioaren aldia hiruhilekoa bada.
Tipo Movimiento	Kontabilitate-idazpenean islatutako mugimendu mota (Mugimendu Mota Zerrendatik elementua)
Información Adicional Diferencia en Menos	Kontabilitate-mugimendu mota biltegiratzeko orduan gutxiagoko diferentzia edo fabrikatzeko orduan gutxiagoko diferentzia denean beteko da (Gutxiagoko Diferentziak Zerrendatik elementua).
Régimen Fiscal	Kontabilitate-idazpenaren xede diren produktuarentzako zerga-araubide aplikagarria
Tipo de Operación	Egindako eraldaketa-eragiketaren mota (Eraldaketa Mota Zerrendatik elementua)
Número Operación	Enpresak eragiketari esleitutako zenbakia

Etiketa	Deskribapena
Descripción Unidad de Fabricación	Fabrikazio-prozesuaren unitatea, fabrikazio- edo eraldaketa-eragiketa edo autokontsumoa egin bada
Código Unidad de Fabricación	Eragiketa egin den fabrikazio-unitateari establezimenduak esleitutako kodea
Tipo Justificante	Kontabilitate-idazpenaren frogagiri mota edo dokumentu euskarria (Dokumentu Mota Zerrendatik elementua)
Número Justificante	Dokumentuari esleitutako zenbakia, kontabilitate-idazpenaren euskarri izateko
Tipo Documento Identificativo	Bidaltzailearen (produktuen sarrerak) edo hartzailearen (produktuaren irteerak) identifikazio-dokumentuaren mota. (Identifikazio Mota Zerrendatik elementua)
Número Documento Identificativo	Identifikazio-zenbakia
Razón Social	Identifikazio-zenbakiari lotutako sozietatearen izena
CAE/Número Seed	Mugimenduaren hartzailearen (establezimendutik produktuen irteerak) edo bidaltzailearen JEK zenbakia ala SEED zenbakia (barnekoa ez den erkidegoaren lurralde eremuan)
Repercusión Tipo Documento Identificativo	Bidaltzailearen (produktuen sarrerak) edo hartzailearen (produktuaren irteerak) identifikazio-dokumentuaren mota. (Identifikazio Mota Zerrendatik elementua) zerga berezia jasanaraziko zaion pertsona edo erakundearen datuena, ZBLk 14.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.
Repercusión Número Documento Identificativo	Zerga berezia jasanaraziko zaion pertsona edo erakundearen datuen identifikazio zenbakia, ZBLk 14.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.
Repercusión Razón Social	Zerga berezia jasanaraziko zaion pertsona edo erakundearen datuen identifikazio zenbakiari lotutako sozietatearen izena, ZBLk 14.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.
Observaciones	Eremu librea, azalpen-datu edo -informazioa aipatzeko.
Epígrafe	Zerga bereziaren xede den produktuei dagokien zerga-epigrafea
Código Epígrafe	Kontabilitate-idazpena kontuan hartuta, zerga bereziaren xede diren produktuen epigrafeari dagokion kodea.
Clave	Lehengaia edo bitarteko produktua identifikatzea (Gakoen Zerrendatik elementua)
Código NC	Kontabilitate-mugimenduaren xede den produktuari dagokion NC kodea, 2658/1987 (CEE) Araudiak, uztailaren 23koak, muga-zergen nomenklatura eta estatistikari eta aduana-zerga erkideari buruzkoak, indarreko I. eranskinaren azkeneko aldaketarekin bat xedatutakoa ala "HAINBAT" kontabilitate-idazpenak epigrafe eta epigrafe-kode berean, baina NC kode desberdinetan sailkatutako produktuak aipatzen dituenean.
Densidad	Produktuaren dentsitatea

Etiketa	Deskribapena
Descripción de Producto	Establezimenduak kontabilitate-idazpenaren xede diren produktuei esleitutako izena.
Referencia Producto	Establezimenduak kontabilitate-idazpenaren xede diren produktuei esleitutako produktu-erreferentziaren zenbakia edo kodea
Unidad de Medida	Neurketa unitateen kodea (Neurketa Unitateak Zerrendatik elementua)
Cantidad	Kopurua, produktuari dagokion epigrafe-kodearen arabera, zerga berezien kontabilitate-liburuen prozedurarako Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoa jasotako taulan aurrez ikusitako neurketa-unitatean adierazita
Tipo de Envase	Produktu bukatuak eta kontabilizatuak doazen ontzi-motaren kodea (Ontzi Motak Zerrendatik elementua)
Capacidad de Envase	Ontziaren edukiera litrotan
Número de Envases	Kontabilitate-idazpenaren xede den eragiketan guztizko ontzien kopurua
Grado Alcohólico	Erositako gradu alkoholiko bolumetrikoa
Cantidad de Alcohol Puro	Alkohol puruaren kantitatea
Porcentaje de Extracto	Aterakin naturalean ehunekoa, aterakinaren kiloak eta kilo fisikoak zatitzean lortutakoa (garagardoa fabrikatzean)
Kg. - Extracto	Duen aterakin naturalaren kantitatea (garagardoa fabrikatzean)
Grado Plato Medio	Batez besteko plateraren gradua
Grado Acético	Gradu azetiko, 100 mililitro ozpinean dagoen gramo azido azetikoren bidez zehaztua.
Peso Neto Tabaco	Tabako-produktuaren pisu garbia
Valor Global Tabaco	Penintsulan eta Balear Uharteetan kokatuak dauden tabako eta tinbre saltokietan tabako-lan bakoitza jendeari saltzeko prezioaren balio orokorra, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako prezioak
Precio Venta Público	Penintsulan eta Balear Uharteetan kokatuak dauden tabako eta tinbre saltokietan tabako-lan bakoitza jendeari saltzeko gehieneko prezioa
Contenido Unidad Venta	Salmenta-unitate bakoitzean dagoen kantitatea, zigarreta, zigarro edo zigarro txikien kopuruan ala gramo tabako xehe eta gainerako tabako lanetan adierazita
Descripción Unidad Venta	Argitaratutako zerrendaren arabera salmenta-unitatea deskribatzea.
Poder Calorífico	Produktuaren bero ahalmena

5 INFORMAZIOA HEDATZEKO EREDUA

5.1 Erabilitako estandarrak

Mezua trukatzeko formatua CSV formatuarekin testu lauan fitxategia izango da.

6 MEZUEN EGITURA

Mezuaren egitura UTF-8 kodearekin testu lauaren CSV fitxategia da.

Arauak:

- Mezua egituratzeko eremu bakoitza hurrengotik bereizia dago karaktere berezi bati esker. Karaktere berezi hori “;” izango da. Testu librea duten eremuetan ez da karaktere berezi hori sartuko.
- Erregistro bakoitza (idazpena altan, indargabetzeak edo izakinen saldoak izakinaren kontsultan) bereizteko lerro-jauzia erabiliko da.
- Fitxategiaren lehenengo lerroa balio bakoitza aipatzen duen etiketekin bat etorriko da.

Ondoren, fitxategiak deskribatzeko dokumentuetan eremu bakoitza mugatuko duten notazioak deskribatuko dira:

- Datu multzoak edo eremuak nahitaezkoak izan daitezke ala ez; ildo horri eutsiz, honakoa erabiliko da:
 - (R) Beharrezkoa: datu multzoa edo eremua nahitaezkoa da
 - (O) Aukerakoa: datu multzoa edo eremua ez da nahitaezkoa
 - (C) Baldintzatua: datuen multzoa edo eremua bakarrik baldintza zehatzetan beteko da
- Honako datu-motak erabiliko dira:
 - (AN) alfanumerikoa
 - (A) alfabetikoa
 - (N) zenbakizkoa
 - (D) hamartarra
 - (fecha) data EE-HH-UUUU edo EE/HH/UUUU notazioan
 - (hora) ordua hh:mm:ss.s+ notazioan
 - (fechahora) data eta ordua UUUU-HH-EETHh:mm:ss.s+ notazioan

Eremu bakoitzaren luzera eremu-mota bakoitzaren eskuinean adieraziko da. Zenbaki bat edo “..x” notazioa izango du. Bigarren kasuan eremuak “x digitura bitarteko” luzera duela adieraziko du.

Zenbakizko eremuen kasuan, “x,y” notazioak eremuak “x” digitu dituela eta horietatik “y” hamartarrak direla adieraziko du. Hamartarrak puntuarekin edo komarekin adierazten dira. Zeinu hamartarra zehazten bada, gutxienez digitu bat azaldu beharko da hamartarren bereizlearen aurrean, eta gutxienez digitu bat hamartarren bereizlearen atzean.

“n” motako zenbakizko eremuek ez dute ikurrik onartuko. Zenbakizko eremu hamartarrek (“H” mota), ordea, ikurra onartuko dute.

Z (8,3) formatu motaren adibidea:

- 12345.123 (baliozkoa)
- 12345,123 (baliozkoa)
- 1234567.123 (okerra. Zeinu hamartarraren aurrean digitu gehiegi dago, baita guztira ere)
- 1234567,123 (okerra. Zeinu hamartarraren aurrean digitu gehiegi dago, baita guztira ere)
- 1234.12345 (okerra. Zeinu hamartarraren atzean digitu gehiegi dago, baita guztira ere)
- 1234,12345 (okerra. Zeinu hamartarraren atzean digitu gehiegi dago, baita guztira ere)
- 012.3 (okerra. Adierazgarriak ez diren zeroak ez dira azalduko)
- 012,3 (okerra. Adierazgarriak ez diren zeroak ez dira azalduko)
- +123 (okerra. + ikurra ezin daiteke jarri)
- -123 (okerra. - ikurra ezin daiteke jarri)

Azkenik arau teknikoa (“Tx araua”), baldintza teknikoa (“Tx bald”) edo izan daitezkeen balioen zerrenda (“Lx zerrenda”) datu-multzo edo eremu zehatzari lotu dakizkioke.

6.1 Balioen zerrendak

Hainbat zerrenda dago eta balioak taulatan ageri dira. Ondoren zehaztuko dira. Zerrendek zerbitzu-multzoaren arabera balio desberdinak eskain ditzakete, multzo horien hartzaileak, produktu-zerga mota edo JEK mota kontuan hartuta.

Zerrendak dokumentazio teknikoari dagokion balio-zerrenden atalean kontsulta daitezke. Ondoren, ageri diren zerrendak aipatuko dira:

- **Mugimendu Moten** zerrenda

Establezimenduetan mugimendu eskuragarrien zerrenda azalduko du.

- **Gutxiagoko Diferentziaren** zerrenda

Izan daitezkeen gutxienekoen zerrenda azalduko du eta zerga-mota iragaz daiteke.

- **Araubideen** zerrenda

Izan daitezkeen araubideen zerrenda ageri da.

- **Eragiketa Motaren** zerrenda

Eragiketa eskuragarrien zerrenda azalduko da; zerga-motaren eta establezimendu motaren arabera iragaz daiteke.

- **Frogagiri Motaren** zerrenda

Mugimenduari dokumentu-euskarria emateko frogagirien motari buruzko zerrenda azalduko da.

- **Identifikazio-dokumentu motaren** zerrenda

Identifikazio-dokumentu motaren zerrenda azalduko da.

- **Epigrafeak eta Epigrafe Kodea** zerrenda

Epigrafe eta epigrafe-kode eskuragarrien zerrenda azalduko da. Zerga motaren arabera iragaz daiteke.

- **Gakoen**zerrenda

Lehengaien eta produktuaren gakoaren zerrenda azalduko da.

- **Neurketa unitatearen** zerrenda

Familiaren arabera, izan daitezkeen neurketa-unitateen zerrenda azalduko da.

- **Ontzi Motaren** zerrenda

Alkohol eta Edari Alkoholikoen establezimenduetan ontzi-moten zerrenda ageri da.

- **Salmenta-unitatearen deskribapenaren** zerrenda

Tabako-lanetan izan daitezkeen salmenta-unitateen zerrenda azalduko da.

- **Idazpen Motaren** zerrenda

Idazpen moten zerrenda azalduko da.

- **Indargabetzeko arrazoen** zerrenda

Indargabetzeko arrazoen zerrenda azalduko da.



Sabino Arana, 44
48013 BILBAO (Bizkaia)

Tel: (+34) 944 068 900
Fax: (+34) 944 068 800

e-mail: lantik@bizkaia.eus
<http://lantik.bizkaia.eus>



ER-2023/2005
El Diseño, el Desarrollo y el Mantenimiento de Aplicaciones Informáticas.
ER-0739/2006
La Compra de Bienes y Servicios y el Suministro e Instalación de Equipamiento Informático para la Diputación Foral de Bizkaia.
ER-0811/2008
La Atención al Cliente.